

Luis Alejos



La montaña, escuela de vida

El aprendizaje que requiere la práctica del montañismo ayuda a afrontar muchos de los retos de la existencia humana. Como al nacer, los primeros pasos en la montaña son torpes, inexpertos. Tenemos que aprender a andar de nuevo, incluso a respirar, a fin de obtener un rendimiento óptimo del esfuerzo que realizamos. Ese ritmo sincronizado permite avanzar con paso seguro entre rocas y en el asfalto. Existe paralelismo en el espacio físico, más todavía en el ámbito del comportamiento y la conducta. El sentido de la responsabilidad se impone en cualquier ámbito, sea natural o social. Esfuerzo y sacrificio ayudan a lograr metas deportivas o profesionales. En el monte y en la vida, antes de actuar es preciso analizar las consecuencias. Empeño y tenacidad, previsión y seguridad, son cualidades y exigencias tanto en la práctica montañera como al convivir en sociedad. Por eso, el contacto con la naturaleza es un marco idóneo para reflexionar y tomar decisiones sobre asuntos trascendentales.

Las enseñanzas del montañismo que más aplicaciones tienen en la vida cotidiana tal vez sean las derivadas de los conceptos de austeridad y autosuficiencia. En una mochila cabe todo lo que necesitamos para alcanzar cualquier objetivo, dependiendo la carga y las posibilidades de éxito de nuestra capacidad y resistencia. Al organizar la mochila debemos ser precavidos y espartanos. Asumiendo que tendremos que salir de cualquier situación adversa por nuestros propios medios, no podemos dejar nada al azar. Sin

saber prescindir de lo superfluo no cabe aspirar a coronar altas cumbres o realizar largas travesías. Ir a la montaña implica vacunarse contra las tentaciones del consumismo. En nuestro caso, los principios ecologistas además de un compromiso son una necesidad.

El montañismo genera intensas relaciones humanas, semejantes a las que regulan la convivencia social. Las gentes que frecuentamos la montaña tenemos una doble vida: sin dejar de ser urbanitas, mantenemos el contacto con la naturaleza que marca el origen de nuestra especie. El montañismo y la sociedad discurren por vías paralelas que están conectadas y se interrelacionan. En cierto modo, sentir pasión por la montaña "imprime carácter". Ambicionamos más la calidad de vida que el poder adquisitivo. Priorizamos el ser sobre el tener. Nos motiva más el compañerismo que el individualismo. No somos seres de otra galaxia; nuestro deporte preferido tiene códigos de conducta aplicables a toda la humanidad: la experiencia nos dice que nada se consigue sin esfuerzo, tenemos voluntad de superación, afrontamos riesgos y, sin ser masoquistas, entre nuestras cualidades destaca la capacidad de sufrimiento.

En esta época de crisis de ideas y de valores sociales, cuando las fuerzas que pretenden uniformizar los comportamientos humanos a través de los medios de control de masas se empeñan en someternos e infantilizarnos, la montaña constituye un espacio de libertad para el cuerpo y la mente. Por todo ello nos atrevemos a decir que la montaña es una escuela de vida.

Mendia, bizitzarako eskola

MENDIZALETASUNEAN aritzeko behar den ikasbidea, gizakiaren bizitzak dakartzen erronka askori aurre egiteko lagungarri aparta da. Jaiotzean bezalaxe, mendian emandako lehen urratsak dorreak dira, traketsak. Egiten dugun ahaleginari emaitzarik egokiena ateratzeko, ostera ere ibiltzen eta amasa hartzen ikasi behar dugu. Sinkronizaturiko eritmo horri esker, arroken artean nahiz asfaltoaren gainean ibilera seguruz egin dezakegu aurrera. Ere mu fisikoan paralelismoa baldin badago, areago aurkituko dugu portaera eta gizabidearen alorrean. Erantzukizunaren sena hartzen du aurrea edozein arlotan, hala naturalean nola gizartekoan. Ahaleginak eta sakrifizioak kirol helmuga nahiz erronka profesionalak erdiesten laguntzen digute. Mendian legeztxe bizitzan ere, ezeri ekin aurretik, horrek ekarriko dituen ondorioak neurtu behar dira. Kemena eta adorea, aurreikusmena eta segurtasuna, nahitaezko ezaugarri eta eskakizunak ditugu bai mendizalatasunean eta bai gizarteko elkarbizitzan. Horregatik, naturarekiko harremana oso gune egokia da garrantzi handiko gaiak hausnartu eta erabakiak hartzeko.

Eguneroko bizimoduaren aplikaziorik gehien duten mendizalatasunaren irakaspenak, soiltasun eta buruaskitasun kontzeptuetatik eratorritakoak dira behar bada. Edozein helburu lortzeko behar den guztia motxila batean sar daiteke, zama eta arrakastarako aukera gure ahalmena eta sendotasunaren araberakoak izango direlarik. Motxila atontzean,aldi berean zuhur eta espartar izan beharra dago. Aurka jar dakigukeen edozein atakatik geure kasa irten beharko garela onarturik, ezin utz genezake ezer zoriaren esku. Azalekoari uko egiten jakin barik ez dago gailur garaien konkistarik, ez

zeharkaldi luzerik. Mendira joateak ezinbesteko egiten du kontsumismoaren tentaldien kontrako txertoa. Gure kasuan, ekologismoaren printzipioak konpromisoa ez ezik beharra ere badira.

Mendizalatasunak gizakien arteko harreman biziak ekartzen ditu, gizarteko elkarbizitza arautzen dutenen antzekoak. Mendian maiz ibiltzen garenok bizitza bikoitza dugu: hiritar izateari utzi gabe, gure espeziearen jatorria markatzen duen naturarekiko kontaktuari eusten diogu. Mendizalatasunak eta gizarteak estekaturik dauden eta elkarrekiko harremana duten ibilbide paraleloak segitzen dituzte. Nola edo hala, mendirako grina edukitzea "nortasunaren marka da". Eroste ahalmena baino haragoko bizitza kalitatea nahi dugu. Edukitzearen gainetik izatea lehenesten dugu. Laguntasunak norberekoikiak baino gehiago motibatzen gaitu. Ez gara beste galaxia bateko izakiak, gure kirolik maiteenak gizadi osoari aplikatu dakizkiokeen jokalegeak ditu: ahaleginik gabe lorpenik ez dagoela diosku esperientziak, geure burua gaintzeko gogoia dugu, arriskuei aurre egiten diegu eta, masokistak izan barik, gure ezaugarrien artean sufritzeko ahalmena gailentzen da.

Ideien eta gizarte baloreen krisi aro honetan, masak kontrolatzeko bitartekoen bidez giza portaerak uniformatzen saiatzen diren indarrak gu menperatzen eta infantilizatzen ahalegintzen direnean, mendia askatasun eremua dugu gorputzerako nahiz adimenerako. Horregatik guztiagatik mendia bizitzarako eskola dela esatera ausartzen gara.